

Intxaurrondo

Kultur etxe berria zabalik

IRUTXULO

Joan den asteleheneretik Intxaurrondoko kultur etxe berria zabalik da. Kultur unea Txara 2 izeneko eraikinean dago, eta guztira 200 milioiko aurrekontua izan du.

Zentroaren aurkezpena joan den ostiralean egin zen arren, bizilagunek ezin izan zituzten kultur azpiegitura berriak astelehenera arte ezagutu.

Kultur etxearen erakargarri nagusiak haur eta helduentzako liburutegi handia eta 5.000 dokumentu biltzen dituen fonoteka dira. Ez dira horietatik, baina, erabiltzaileek bertan erabili ahal izango dituzten zerbitzu bakarrak. Bestelakorik ere izango da: hemeroteka, bideoteka eta internet, besteak beste.



Zerbitzu preziatuenak liburutegia eta ia 5.000 dokumentu biltzen dituen fonoteka dira.

Esan bezala, kultur etxeak 200 milioiko aurrekontua izan du, eta Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

hartu dute bere gain finantziarioa.

Eraskuketa batek estreinatatu du kulturgune berria. Eusko Tren-ek Intxaurrondon "topo" geltoki bat egiteko asmoa du, eta egitasmo hori da hain zuzen ere, kultur etxean ikusgai dagoen erakusketaren ardatza.

Auzo elkarteak ikuskizun aretoa txikia dela uste du

Bizilagunak pozik

Inauguraketa dela eta,

inguruetako bizilagunak pozik daude. "Kultur etxea egiteko lehen eskaerak aspaldi egin genituen. Beraz, oso pozik gaude", adierazi digu Roberto Otero Hego Intxaurrondoko auzo elkartearen kidea.

Auzotarrek diotenez, azpiegiturak oso ondo daude. Bada, baina, beren gustukua ez den zerbaite. "Guk eraikin bat eskatu genuen, baina Txara 2n kokatu dute kultur etxea. Horrez gain, ikuskizunetarako aretoaren sabaia baxu samarra da. Beraz, ez dut uste bertan gauza handiak egiteko aukera izango denik", diosku Oterok. Gainera, aipatu aretoa txiki ez ote den gertuko galdetzen dute bizilagun askok.

Galderak galdera, argi dago kultur etxeak inguru horietako kultur ekipamendu eskasia gutxituko duela.

"Orain bertako zuzendari Jon Etxezarragarekin biltzeko asmoa dugu, kultur etxearen programazioaz hitz egiteko", gaineratu digu Oterok.

BIAK

ELEKTRO MEKANIKA
Kotxe konponketa

Zurriola Pasealekua, 24
Tel.. 943 27 56 60
20002 DONOSTIA

SAN VICENTE
ALDE ZAHARRA

BAR
El Encanto

UZKUDUN

ERAKITZE METALIKOAK
eta
ERA GUZTITAKO MUNTAIK

Barromentri dekorazioak, Mantelak, Arotegi Metalikoak, Saldagun berriak

Bº de la Florida, 142 HERNANI 20210
Tel. eta Fax: 943 331 040

AINHOA
taberna

Pintxoak eta kazuelitak


Sarroeta 90, MARTUTENE

Egia

IRUTXULO

Aldakoneako bizilagunak haserre dira. Diotenez, trafikoa eta aparkaleku leku falta direla eta, beste garai batean lasaia zen inguru horretan kotxeen joan etorriak eta bigarren lerroan aparkatzen dituzten kotxeak eguneroko gauza dira.

aipatu beharra dago, Aldakonea gainan zahar etxe bat eta Onkologia zentroa daudela, eta bertaraino igotzeko ez dagoela inolako garraio zerbitzurik. Aldapa estua denez, gainera, aparkaleku gutxi dago.



Ez dirudi Udalak autobus zerbitzua abian jartzeko asmoa duenik.

Gauzak horrela, orain urtebete bertako auzo elkarte-kideak Odon Elorza eta Patxi Beloki zinegotzi ohiarekin bildu ziren. "Arazoa azter-

tuko zutela erantzun ziguten, baina, urtebete pasa da eta oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso", adierazi digu Mari Jose Serrano auzo elkarteko kideak.

Auzo elkarteak bertarainoko autobus zerbitzua abian jartzea eskatu zien udal agintariei. Eskerak, ordea, ez du fruiturik eman. "Garraio zerbitzurik balego lasaiago biziko ginatke, ez baitzen horrenbeste kotxe honaino etorriko. Hortaz, aparkatzeko leku

6
laz bizilagunek
autobus zerbitzua
jartzea
eskatu zuten


gehiago egongo litzateke. Hala ere, ez dirudi udaletxe-koeek autobusik jartzeko asmoa dutenik", diosku Serranok.

Auzotar horren arabera, Osalan izeneko erakundea irikitzearekin batera, gainera, arazoa larritu egin da. Beraz, kotxe ilarak saihesteko, bizilagunek bi aukera dituzte erdialdera joateko: Jai Alaitik edo Ategorrietatik jaistea. "Jai Alaiko bidea arriskutsua da. Ategorrietako aldaparaino iristeko, berriz, ia Intxaurrendoraino jo behar dugu. Bai batetik bai bestetik joateko kristoren buelta eman behar dugu", adierazi digu Serranok

Tailerrak haur txokoan

Egiako Haur Txokoa zabalik da dagoeneko. Udan gunea itxita egon da. Hala ere, bertako hezitzaileak batetik bestera ibili dira udaleku irekietan eta kanpaldietan. Lanean hasi bezain pronto iragarri dituzte tailer berriak: euskal mitologia, antzerkia, malabare eta panderoa Tailerrok astelehen, astearte edo asteazkenetan egingo dira, urriaren 9tik aurrera.

XVII. Literatur Lehiaketa



Lanak aurkezteko
epea: 2000-10-20
(12.00ak arte)



"Bordari" eta "Satarka"
sariak

HONDARRIBIKO UDALA

DONOSTIA
LASARTE
ERRETERIA
OIARTZUN
IRUN

ETXEBIZITZA
ETA TXALETEN
SALMENTA

itesa
ZERBITZU INMOBILIARIOAK
J.L.A. IGNAZIO ITURZAETA

San Martzial kalea, 8, 1 - esk. • 943 42 36 00 telefonoa
DONOSTIA